



Denbora-

1 Osatu marrazkia

Irenak marrazkiak erdi eginda uzteko joera izugarria dauka. Marrazkiaren erdia egitea eta margotzea da zuen lana.





2 Lotu bikoteak

Aquariumeko arrainak bikoteka sailkatu dituzte. Eragiketa egin ostean, jarri zenbaki bereko arrainak batera.

Erantzunak: 2.-A-1, E-F, G-H, B-D.

3 Kopiatu laukiz lauki

Udaberria iritsi da, eta zelai guztiak lorez jantzi dira. Ekaitzek lorategiko lore bat marraztu du. Lore berdina margotuko al zenukete?



- pasak

4 Hizki salda

Gatza, porruak, haragi zatitxo bat eta, bereziki, hizkiak dira Amona Josefinaren zoparen osagai nagusiak. Hizkiekin batera, gainera, lapikoan dauden hitzak




nahasi ditu.

Non daude idatzirik?



5 Hitzekin jolasean




Hizki hauek kontuan harturik, ea zenbat hitz osatzen dituzuen. Hizki guztiak erabil ditzakezue, baina ez da beharrezkoa.

Zenbat hitz osatu dituzue?

Damak

XII. mendean sortu zuten joko hau, eta harrezkero aldaketa ugari izan ditu. Hemen proposatzen dizuegun bezala jokatu ohi da dametan



1 Jokatzeko, xake taula bat erabil dezakezue, baina, nahi izanez gero, zeuek ere sor dezakezue taula.

2 Partida hasi aurretik, fitxa bakoitza bere lekuan kokatu behar da (marrazkian agertzen den moduan). Jokalari bakoitzak, txandaka, pieza bat mugituko du. Fitxa beltzak dituenak hasiko du partida.

3 Fitxak aurreraka eta diagonalean mugitzen dira beti.

4 Zuen zeregina aurkariaren fitxak jatea izango da. Horretarako, aurkariaren fitxaren gainetik egin beharko duzue salto. Salto egiteko, baina, aurkako fitxaren atzean hutsune bat eduki behar da, zuen fitxa hutsune horretan kokatzeko. Mugimendu berean salto bat baino gehiago egin daiteke.

5 Ahal bada, aurkariaren fitxak harrapatu behar dira. Hartzeko aukera izan eta ohartu ez bazarete, aurkariak jan dezake zuen fitxa.

6 Fitxaren bat taularen beste ertzera, hau da, aurkariaren hasierako puntura heltzen denean, dama bihurtuko da. Horretarako, bi fitxa ipiniko ditu, bata bestearen gainean. Dama ere diagonalean mugituko da, baina, aurrera ez ezik, atzera ere egin dezake, eta hainbat lauki gaindi ditzake jarraian, hau da, ez du zertan hurrengo laukian ipini. Damak ere ahalik eta fitxa gehienak jan behar ditu.

7 Aurkariaren fitxa guztiak jaten dituen lehen jokalaria irabaziko du partida.